

Mafalda, oraindik ez

Miren AZKARATE
BADIOLA

Zer gertatuko litzateke Lurra planeta bat-batean geratuko balitz?» Galdera hori lerroburutzat zuen albiste bat irakurri nuen duela egun batzuk eta, hasiera batean kasu zipitzik egin ez nion arren, gutxira albiste berri bilatzea erabaki nuen. Badakizue, ni ere askotan albisteak mugikorrean irakurtzen, behatza gora eta gora ibiltzen naizen pertsona horietakoa naiz, maiz lerroburua irakurrita hortxe geratzen dena eta hurrengora pasatzen dena apenas denborarik hartu gabe irakurtzeko. Bai, kazetari bezala beti gorro-

to izan dudana zera hori bihurtu naiz ni ere. Baina, aldi honetan, denbora hartu eta ordu batzuetara albiste goitik behe-ra irakurri nuen. Besterik gabe kuriositate handia sortu zidan galderak, aitortu behar dut inoiz burutik pasa ere egin ez zaidan aukera bat zela hori. Meteorito batek lehertuko zuela gure planeta, edo azken aldian indarra hartu duen munduaren akaberan pentsatu izan dut maiz, hau da, gizakiok sunsituko dugula gure planeta apurka-apurka (edo ez hain poliki), gure bizitokia eta espezieak. Baina mundua geratuz gero –Ma-

faldak esaten zuen bezala: «Geratu dadila mundua, ni jaitsi egingo naiz-eta»–, denak eta dena airean aterako zenik, niri ezta okurritu ere! Bada, zientifikoen arabera, gerta daitekeen zerbait da. Ez nuke nahi berehala izaterik, bizitza ederra baita eta nire seme-alabak txikiak baitira oraindik, baina aitortu behar dut, norberaren heriotzarekin bezala, azkar eta sufritu gabe bada, aukera hau onenetarikoa iruditzen zaidala. Mafaldari aurka egitea ez dut gustuko, baina, oraingoan, ez dakit ba mundua gertzerik nahi dudana. •

Zertarako ikusi eta entzun nahi da biktima?

Amagoia MUJICA
TELLERIA

Bortxaketa bat jasan zuen pertsona bati entzun berri diot barruan pausatu zaidan gogoeta bat. Bortizkeriaz bortxatu eta jipoitu zuten, eta parke ilun batean abandonatu, segur aski hilda zegoelakoan. Handik bizirik atera zenean, inoiz baino grina handiagoa omen zuen bizitzeko, lagunak berrakatzeko, etxekoekin gozatzeko, paseoan ateratzeko, dantzatzeko... bizitza ospatzeko behar ikaragarria sentitzen omen zuen. Ingurukoek ez zuten asko ulertzen, epaitua ere sentitu zen, bortxaketarena akaso ez zela “hainbesterako” izan pentsatuko zuten askok, “shock” egoeran zegoela beste batzuk...

Berak, aldiz, oso garbi zeukan zer gertatzen zitzaion: heriotzaren hatsa hain gertu sumatu zuen, hil egingo zela hain

garbi ikusi zuen, non bizitza zuzentzeko behar basatia sentitzen baitzuen. Horrela azalduta, erabat arrazoizkoa eta logikoa dirudi. Baina, onar dezagun, normalean biktimak guk espero bezala jokatzeko duen errazago kokatzen gara. «Birrintuta dago, gaizki, nola egongo da, bada? Ni ere halaxe egongo nintzateke». Dena bere tokian. Puzzleko pieza bakoitza bere tokian. Baina pieza bakoitzak non egon behar duen ez da berezkoa, naturala, ikasia da. Eta biktimari zorrotz begiratu behar hori ere ondo ikasia eta barneratua daukagu. Indarkeria matxistaren biktima izan denari nondik eta nola begiratzen diogu? Ba al dugu nahikoa patxada eta adore begietara begiratzeko, esan nahi dituenak entzuteko, isildu nahi dituenak errespetatzeko?

Aste honetan Dani Alves futbolariaren kontrako epaiketa hasi da, emakume bat bortxatu izana leporatuta. Biktimaren irudia eta ahotsa garden eta garbi jasotzeko nahiak bazterrak nahastu ditu. Kazetari zenbait haserre agertu dira epaileak biktimaren pribatutasuna zaintzeko hartu dituen neurriak direla eta. Baina, zertarako ikusi eta entzun nahi da biktima? Nahikoa triste dagoela ziurtatzeko? Bere aurpegian lo gutxi egiten duela igartzeko? Behar baino alaiago ez dagoela neurtzeko? Bizitzeko gogo gehiegi ez duela ikusteko? Arazoa ez da biktima, arazoa erasotzailea da. Biktima izateko ez da aparteko gaitasunik behar. Ondo frogatuta dago edozein emakume izan daitekeela indarkeria matxistaren biktima. Bada garaia horrekin konturatzeko eta indarrak behar diren norabidean inbertitzeko. •